

AGUR, ADISKIDE MIN LANDAJUELA

Zure giza-duintasanak idazlari on bat bear leuke zure jaiotza, inguru, lan ta zintzotasuna agertzeko. Munduak nai leuken antza eriozun gizonen artean ta zure lanean.

ARRATIA'N

Lenengo ta bein, euskal mendi ta ibarren erdian bizitz ontako argia artu zendun.

Lur oneri, ondo, eritxi zeuntzan.

Mendiak ederrak; soloak alaiak, lurra mamintsua ta egizkoa.

Izadiak, alan bearrez, bere izaera, mamin, egi, maitasuna, oparo, eskeiñi eutsuzan Arratiako lurretan. Ta zure begiak, begira begira, jarri ziran ainbeste edertasunen aurrean.

Dana deika zeunkan, lurraren samurtasun guztia opaka seme kutun bateri legez...

IZADIAN

Lurak zure barrua erri-mindu nai eutsun.

Ortarako, gauzarik onenak ta eztsuenak jarten eutsuzan begien, zentzunen, buruaren ta biotzaren aurrean.

Lurraren bizia zain: euskaldunak, gure baserritarak lantzen zituen mendi, zelai ta solo zabalak begira...

Gure itxaso zabal ta indatsuak, euzko arrantza-leak, pozez, eta nekez, sarri, jorratuak, begira zeunkazan arrain bizia eskeintzen.

GIZARTEAN

Ta zuk, seme jator legez, euzko gizadiari begiraturik, erritarren egi, izate ta eskubideak ikusi ta onartzen jakin zenduan. Eginbear lenena ta gizontsua zan au zuretzat.

Izatez, berez, emon jatsuzan lur ta ingurua abegi onez artzea, gizon duintasuna zan seme leialarentzat.

Oker-bidez etxea ez zendun saldu. Lurralde txikia zala-ta, bertan bera, ez zenduan itzi.

Millak urteetan zure enda autatuak, bidez ta legez, irabazi eutsuzan buru, biotz, odol, mamin ta azur oro.

EUSKALERRIAN

Ementxe, alkartu ziran erria ta semea, biak bat izanik benetako kidesunean.

Euzko izadi ta gizadiak emon eutsuezan almen bikain ta egizaleak. Ta geroztik beti, arduratu ziñan ikusten ta ezagutzen biziaren sorrera. Au, egiz, da gizontasun garbia... Aita ta ama saltzeak, izan be, seme baten bururik eza, biotz kaskarraren erdoikeria ta gizon galduaren gaiztakeria, garbi, agertzen ditu.

IRU ARLO

Gizon zuzen eta leialak guraso ta arbasoen bizia, jakituria, oitura, jatorria, izkuntza, odolez eroanez batera, bere nortasunean, maitasunez, ezarrita daukaz.

Gauza ain baliotsu ta ederrak, al dan giñoan, era onenean, bizi-barritu ta edertu egin nai ditu.

Ortarako, erri sendo ta zintzo baten sena norberak eroan bear dau, arbasoak zer sortu eben ikusi, ta aurrerantzean, etorkizunak zer eskatzen deuskun jakin ta euskaldun seme legez erriaren bizia edatzeko semeen semerako.

Lena ta geroa egiaz alkartzen ditugunean, gurasoen erria ta ondorengo semeena benetakoa ta indartsua izango da.

Oiñarri sendo ta aundietan sustraituta zeunkan zure gizon bizitza: Jaungoikoa, lana, ta euskera.

Iru alor onetan murgildu zan zure gogoa.

Egille barik gizona iñor ez dala, gabeko itzaltasunean izarrak lagez, argi, ikusi zenduan. Ori-gaitik, zure sinismena aberatsa zan. Xure otoia ta urko-lagunarenganako arrera oneko maitasuna Jaungoiko zaletasunaren agiri bikain ta indartsuak ziran.

LANGILLE

Lana, berezko griña, ukatu eziña zan zure bizitzan. Egunetik egunera, beti, bizia urtzen, otseindu zenduzan sendi ta gizartea. Baiña, zure arimaren arnasa ta garra euzko izkuntzaren bizia, jakituria ta edertasuna izan ziran.

Langille errimea ziñalarik, edonun ta alderdi gutietatik, berez, landu zendun gure izatea, gogoa ta lana berbera, munduan zear, edatuko zituan gure izkuntza: ama euskera.

Gogoan zaitugu, ta Euskalerrriak, iñoiz, ez dauztuko, euzko jakitunen izkuntzaren alde izan zendun lera ta egin zendun lana.

EUSKAREA

Izkuntza menperatu zendun ta onen bizia ta edertasuna zaintzen alegindu ziñan euskaldun zentzun guztiagaz.

Berbeta guztiak daroe, erri jator batek emon dautsozan jakituria, sena ta edertasuna.

Ta gureak erri erriko erraietarik arturiko izakera ta bitxiak daukaz. Ori-gaitik da jakintsua ta ederra.

Zure alegiña, jakituriz, erriaren berbeta, mintzaira zoragarria aldeztu, landu ta indartzea izan da.

PAULIN